



Datu Orokorrak

Irakasgaia: OSASUN ARLOKO LEGERIA ETA ADMINISTRAZIOA

Titulazioa: FISIOTERAPIAKO GRADUA

Mota: D

ECTS kredituak: 3 ECTS

Maila: 3.

Denbora-banaketa: sei hilekoa, urtea, etab. 2. SEIHILEKOA

Hizkuntza: GAZTELANIA

Irakasle-taldea: Alejandro Carmona alejandro.carmona@euneiz.com

Irakasgaiaren aurkezpena:

Osasun arloko legeria eta administrazioa irakasgaiak Espainiako osasun-sistema, haren araudia eta eredu desberdinak ditu ardatz. Ikasleek osasun-zerbitzuen kudeaketari, plangintzari eta ebaluazioari buruz ikasiko dute, baita asistentziaren kalitateari eta pazientearen segurtasunari buruz ere. Fisioterapiari aplikatu dakioken legeriaren funtsezko alderdiei ere helduko zaie, eta fisioterapia-zentro baten kudeaketa eta irekiera aztertuko dira.

Datu espezifikoak

Prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzak (PIE)

Ezagutzak edo Edukiak (E)	E17	Osasunaren funtsezko kontzeptuak eta fisioterapeutak osasun-sisteman betetzen duen funtzioa ulertzeko.
	E18	Fisioterapiako zerbitzu edo unitate baten kudeaketa-prozesuak ezagutzea eta aztertzea.
	E19	Kode etiko eta deontologiko profesionalak ezagutzea.
	E20	Espainiako Osasun Sistema eta osasun-zerbitzuen kudeaketarekin lotutako alderdiak ezagutzea, batez ere fisioterapiak esku hartzen duenetan.
	E30	Osasunarekin lotutako faktoreak eta fisioterapiarekin lotutako arazoak ulertzea Lehen Mailako Arretaren, Arreta Espezializatuaren eta Lan Osasunaren eremuetan.
Gaitasunak (GA)		



Irakaskuntza Gidaliburua

2025/26 ikasturtea

Treibetasunak eta Abileziak (T)	T6	Osasuna sustatzeko, prebenitzeko, babesteko eta berreskuratzeko eremuetan esku hartzea.
	T8	Ebidentzia zientifikoan oinarritutako fisioterapiako laguntza-protokoloak egiten parte hartzea, fisioterapiako ikerketa dinamizatuko duten lanbide-jarduerak sustatuz.
	T11	Kudeaketa klinikoko trebetasunak eskuratzea, honako hauek barnean hartuta: baliabide sanitarioen erabilera eraginkorra eta plangintza, kudeaketa eta kontroleko jardueren garapena fisioterapiaren arreta ematen den unitate asistentzialetan.
	T19	Bizi-ohitura osasungarriak sustatzea osasunerako hezkuntzaren bidez.
	T20	Fisioterapia-praktikan kalitate-mekanismoak ezagutzea eta aplikatzea, jardun profesional egokirako onartutako eta balidatutako kalitate-irizpide, -adierazle eta -estandarretara egokituta.

Irakasgaiaren Edukia*

- Osasun-administrazioa:
 - Espainiako Osasun-sistema. Espainiako osasun-sistemaren oinarritzko araudia. Estatu-mailako arau-garapena. Euskal Autonomia Erkidegoko araudia.
 - Osasun-sistemen hainbat eredu.
 - Osasun-zerbitzuen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa.
 - Asistentziaren kalitatea eta pazientearen segurtasuna.
- Legedia:
 - Orokorra eta profesionala
 - Lan- eta gizarte-legeria.
 - Legeria penala eta fisioterapia.
 - Pazienteen eta osasun-profesionalaren eskubideak eta betebeharrak.
- Jardura ekintzailearen hasiera. Enpresa-plana. Fisioterapia-zentro bat kudeatzea. Fisioterapia-zentro bat irekitzeko legezko prozesua. AMIA analisia.

(* Garatutako edukia eskuragarri dago Unibertsitateko Campus Birtualean argitaratutako irakasgaiaren irakaskuntza-programazioan)

Irakaskuntza-metodologiak eta prestakuntza-jarduerak

Irakasgai honetan erabilitako irakaskuntza-metodologiak honako hauek dira:

IM1	Azalpenezko metodoa
-----	---------------------



Irakaskuntza Gidaliburua

2025/26 ikasturtea

IM2	Kasu-azterketak
IM3	Arazoetan oinarritutako ikaskuntza
IM6	Tutoretzak

Irakasgai honetan erabilitako prestakuntza-jarduerak honako hauek dira:

Prestakuntza-jarduerak	Aurreikusitako orduak	presentzialtasuna (%)
PJ1: Klase teorikoa	19	100
PJ2: Praktika-klasea	8	100
PJ3: Lanak egitea (banakakoak eta/edo taldekoak)	15	0
PJ4: Tutoretzak (banakakoak eta/edo taldekoak)	3	20
PJ5: Ikasketa independentea eta ikaslearen lan autonomoa	28	0
PJ6: Ebaluazio-probak	2	100
Guztira	75	

Ebaluazioa: Ebaluazio-sistemak eta -irizpideak

Irakasgai honetan honako ebaluazio-sistema hauek erabili dira:

Izendapena	Gutx. hazt.	Gehi. hazt.
ES1 Ikaslearen bertaratzea eta parte-hartzea ebaluatzea	5	10
ES2 Lanen ebaluazioa	15	40
ES3 Ebaluazio- eta/edo azterketa-probak	30	60

- Ikasleak bi ebaluazio-modalitate ditu irakasgaia gainditzeko:
- Etengabeko ebaluazioa, urtean 2 deialditan: ohikoa eta ezohikoa.



Irakaskuntza Gidaliburua 2025/26 ikasturtea

- Ebaluazio bakarra, urtean 2 deialditan: ohikoa eta ezohikoa.
- EUNEIZ Unibertsitatean, ebaluazio jarraitua (irakasleek definitutako irakasgaiaren jardura ebaluagarrien batez besteko haztatua) funtsezko ebaluazioa da, baina EUNEIZek ebaluazio bakarra egiteko aukera ematen dio ikasleari (azterketa bakarra).
- Ezin da aldatu ikasturtean zehar ikasleak aukeratutako ebaluazio-modalitatea (jarraitua izatetik bakarra izatera).
- Ebaluazio bakarraren modalitatea baliatu nahi duen ikasleak hori **justifikatzen** duen idazki formal bat eskatu beharko die irakasgaiaren ardura duten irakasleei eta tituluaren koordinazioari, ikasturtea hasten den lehenengo bi asteetan.
- Ikaslearen % 80 eskola presentzialetara joaten ez bada, ezingo da ohiko deialdira aurkeztu eta automatikoki ezohiko deialdira igaroko da.
- Hutsegiteak irakasgaiaren ardura duen irakasleari justifikatu behar zaizkio, astebeteko epean gehienez ere. Egiaztagiri ofiziala posta elektronikoz aurkeztu beharko zaio irakasle arduradunari.
- Salbuespen gisa, irakasgaiaz arduratzen den irakasleak beste irizpide osagarri batzuk ere erabili ahal izango ditu, hala nola ikaslearen parte-hartzea, jarrera, jardun- eta aprobetxamendu-maila eta abar, ikasleak deialdi arruntean jarraitzeko aukera izan dezan, baldin eta gutxieneko bertaratzea % 70etik gorakoa bada.
- Ikaslea ezohiko ebaluaziora joango da BAKARRIK suspenditutako zatiekin.
- Irakasgaiaren kalifikazio-sistemak 1125/2003 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraitzen dio, eta lortutako emaitzak 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalari jarraituz kalifikatuko dira, dezimal baten adierazpenarekin.
 - 0-4,9: Gutxiegia (GT).
 - 5,0-6,9: Nahiko (NK).
 - 7,0-8,9: Oso ongi (OO).
 - 9,0-10: Bikain (BI)
- «Ohorezko matrikula» aipamena 9.0 edo gehiagoko kalifikazioa lortu duten ikasleei eman ahal izango zaie. Kopurua ez da izango dagokion ikasturtean ikasgai batean matrikulatutako ikasleen ehuneko bost baino handiagoa, matrikulatutako ikasleen kopurua 20tik beherakoa denean izan ezik; kasu horretan, «Ohorezko Matrikula» bakarra eman ahal izango da.
- Ebaluazio-jarduerarik egiten ez duen ikasle matrikulatua ez-aurkeztutzat (EA) joko da.
- Idatzizko ebaluazio-jardura orok (lanak, azterketak...) ortotipografia-hutsegiteak hartuko ditu kontuan azken kalifikazioan.
- Plagioa debekatuta dago, bai lanetan, bai azterketetan; antzemanenez gero, kalifikazioa



Irakaskuntza Gidaliburua 2025/26 ikasturtea

gainditu gabe geratuko da. Gainera, campus birtualaren bidez entregatutako lanak Turnitin tresnak aztertuko ditu:

- Irakasleak % 20 eta % 30 arteko antzekotasun-indizea duten txostenak berrikusiko ditu, plagio-iturri posibleak aztertzeko eta justifikatuta dauden ebaluatzeko.
- Irakaslearen analisia egin ondoren, % 30etik gorako antzekotasun-indizea duen edozein lan ez da ebaluatuko.

Bibliografia eta ikasteko beste baliabide batzuk

Oinarrizko Bibliografia

- Piedrola Gil (2016). *Medicina Preventiva y Salud Pública*. 12. ed. Elsevier Masson. Barcelona.
- Martínez González, M.A. (2013). *Conceptos de Salud Pública y estrategias preventivas*. Elsevier España, S.A. Barcelona.
- Hernández Cueto, C., Girela López, E., Lachica López, E. (2018). *Manual de Medicina Legal y Forense*. Editorial Técnica Avicam. Granada.

Bibliografia Osagarria

- Gisbert Calabuig, J.A., Villanueva Cañadas, E. (2018). *Medicina Legal y Toxicología*. 7. ed. Elsevier. Barcelona.
- Casas, J.D., Rodríguez, M.S. (2000). *Manual de Medicina Legal y Forense*. Editorial COLEX. Madrid.
- Hernández Cueto, C. (2001). *Valoración médica del daño corporal. Guía práctica para la exploración y evaluación de lesionados*. 2. ed. Masson. Barcelona.
- Martínez Ferrer, ... et al. (2011). *Legislación sanitaria y deontología para fisioterapeutas*. ICOPV. Comunitat Valenciana.

Gomendatutako Beste Ikaskuntza-baliabide Batzuk

-